

Geure iturrietatik

Ingura, euskara online ikasteko sistema berria eraikitzen

Online euskara ikasteko *Ingura* egitasmo berria sortzeko prozesuan orain arte egindako bidea jasotzen du artikulu honek. 2021eko martxoan hasi eta gaurdaino emandako pauso eta hartutako erabakiez gain, finkatu diren puntuen berri ere ematen da: *Inguraren* ezauzgarri nagusiak, berau osatuko duten ikastaroen antolaketa, eta ikasunitateen edukiak, besteak beste. *Ingura* inguru digitalak eredu teknopedagogikoa izango du oinarri. AI-CI bitarteko mailak eskainiko ditu, eta orain arte euskara ikastera hurbildu ez den herritarra erakarri eta erabiltzailearen eta euskaltegiaren arteko zubi-lana egingo du. Euskara ikasi nahi duen orori tresna erraz, erakargarri eta motibagarria eskaintzea du xede.

Gako-hitzak

autoikaskuntza, euskara, Ingura, online, teknopedagogia

HABE

a-ertzibengoa@habe.eus

1. SARRERA

Euskara-ikasle helduei bideratutako autoikaskuntza-sistema berri bat sortzeko beharra jarri zuen mahai gainean Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 2021eko martxoan. Premia hori asetzeko, HABEri egin zion enkargua: hizkuntza-teknologiak integratuz, euskara ikastera euskaltegiara jotzen ez duten pertsonak gerturatzeko zubi-lana egingo duen metodo bat egitea. Enkargu horretatik sortu zen *Ingura* egitasmoa, hartzailearentzat atsegina, erraza eta motibagarria izatea helburu izanik, artikulu honetan aletuko duguna.

Aurretik norbere kasa ikasteko izan diren antzerako metodoekiko alde nabarmenak izango ditu eta berrikuntzen artean aipatzekoa da ikastaroen haratagoko ingurune digitalaren ideia: hau da, ikastaroak ez dira orain arte bezala kudeatzaile bakoitzak bere modura erabili edo aldatuko dituen pieza solteak izango. *Ingurako* ikastaro guztiak, doakoak zein matrikulapekoak, Ikaskuntza Kudeatzeko Plataforma (LMS) batean integratuta eskainiko dira, hots, ikas-prozesua aurrera eramateko beharrezkoak diren osagai guztiak pakete itxi bakarrean jasota izango ditu. Horri esker, euskara-ikasleak edozein gailu elektronikotatik noiznahi eta nonahi ikasteko aukera izango du. Plataforma horrek berak HABEren eta euskaltegien arteko prozedura administratiboak ere ahalbidetuko ditu.

Ibilbide luzeko lasterketa da, zalantzarik gabe, A1etik C1era bitarteko edukiak online eskaintzeko helburua baitu. Urte oso bat behar izan da *Ingura* definitzeko, haren ezaugarriak zehazteko eta lehen urrats praktikoak emateko.

1. irudia. Ingura proiektuaren logotipoa



2. ABIAPUNTUA

2021eko martxoan enkargua jaso ondoren, egitekoari heltzeko lantaldea eratzea izan zen lehen pausoa. Hainbat arlo inplikatzeko dituen proiektua izaki, lantaldea ere hainbat ezagutza-arlotako lagunekin osatu zen hastapenean: HABEko Metodologia eta Edukien arloak du egitasmoaren gidaritza, baina beste arlo batzuetako teknikariak (Curriculumaren Garapena eta Prestakuntza Arloa eta Hizkuntzaren Teknologien Arloa) ere parte hartzen ari dira, eta horrekin batera Maite Goñi Eizmendi adituaren aholkularitza eta Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartearen (EJIE) partehartzea ere funtsezkoa izan da.

Abiapuntua argia zen: orain arte aurreko eskolen ibilbidearen alternatiba izan dena aztertu, beharrak identifikatu eta hura hobetzeko eta guztion eskura jartzeko pausoak ematea. Eta azken urteetako ibilbidearen marrazkia egiteko, hutsuneak eta indarguneak identifikatzeko, eta proposamenak eta eskaerak jasotzeko, zer hobe autoikaskuntza-sistema aplikatu duten zentroekin hitz egin eta haien inpresioak jasotzea baino? Hala, bi saio antolatu ziren hainbat zentrorekin 2021eko apirilean. Lehenengo saioak haien esperientzia partekatzeko balio izan zuen: orain arteko sistemen bertute eta ahuleziak azalera ziren, eta horiek aintzat hartuta, *Ingurak* izan beharko lituzkeen zenbait ezaugarri mahai gainean jarri ziren.

Saioetako partehartzaileak bat etorri ziren, oro har, aurreko autoikaskuntza-sistemek beren garaiari ondo erantzun ziotela esatean, besteak beste, denboran iraun izana da horren froga, ikasleek oraindik ere erabiltzen baitituzte. Baina ahuleziak ere bistaratu ziren, hala nola, Helduen Euskalduntzearen Oinarriko Curriculumaren (HEOC) aurreko garaiari lotuta daudela, elkarreraginik eza, gaur egun jada teknologikoki zaharkituak egotea... Beraz, sistema berri bat sortzea egungo ikuspegiei erantzuteko modua izan daiteke, teknologikoki zein pedagogikoki. Ikuspegi horien baitan daude ekintza komunikatiboaren aspektua txertatzea, trebetasunak orekatu eta integratzea, neurozientziaren ekarpenak jasotzea, edota komunikaziorako tresnen garapena baliatzea.

Horiek guztiak kontuan hartu dira *Ingura* antolatzeko garaian, baita aipatutako saioetara etorritakoek adierazitako kezka hauek ere: pertsonen teknologiarik buruz duten ikuspegi desberdina; teknologiarik laguntza baino, menpekotasuna ekartzea; euskaltegien aurreko aurreko jardunaren garrantzia, edo ikasleen ezaugarriak.

Bigarren saioan, berriz, eredu berrirako gidalerroak zirriborrazteko ondoko ideiak jaso ziren:

- Kanpoko esperientziak ezagutu eta haien eskarmentuaz baliatzea; alderdi didaktikoa alderdi teknologikoari gailentzea; edo programa soil bat baino, ekosistema bat izatea.
- Alderdi didaktikotik, HEOCarekin bat etorrira hitzun osoak lortzera bideratua izatea trebetasun guztiak landuz, eta ikaslearen autonomia bultzatzea. Elkarreaginean oinarritutako ingurunea irudikatu zen, irekia. Unitateak diseinatzeko garaian gamifikazioaren moduko elementuen garrantzia ere aipatu zen.
- Alderdi teknologikoari dagokionez, aplikazio malgua izatea hobetsi zen, irisgarria, eguneratze teknologikoak ziurtatuko dituen. Mintzamina eta entzumena lantzeko beharra aipatu ziren, baita aplikazioa zein gailutan erabiliko den kontuan hartzea. Irakasleari begira, ikasleen jarraipen-datuak jasoko dituen sistema baten garrantzia aipatu zen, eta ikasleari begira, berriz, bere prozesuaren berri modu argian jasoko duena. Halaber, atsegina eta erakargarria izatea.

3. ANALISIA

Aurrelanak eginda eta ideia horiek guztiak aintzat hartuta, hurrengo hilabeteak funtsezkoak izan ziren joko-zelaia argitzeko. Inguruan dagoena behatu zen: antzeko plataformek erabiltzen dituzten teknologiak eta metodologiak aztertu, eta haien arrakasta baloratu zen. Ondoen baloratutako plataformetatik baliagarria izan zitekeena jaso, eta *Inguran* aplikatzeko aukerak, zailtasunak eta oztupoak jarri ziren mahai gainean.

Aldi berean, Eusko Jaurlaritza garatzen ari den hizkuntzari lotutako berrikuntza teknologikoak txertatzeko aukera aztertu eta egitasmo berria abiatzeko osagaiak identifikatu ziren: esate baterako, LMSa (Moodle...), ikastaroa, unitateak, unitate bakoitzeko atalak, atal bakoitzeko elementuak... Pauso bat harago joanez, online ikaskuntza-prozesu integrala bermatzeko unitateetan oinarrituko elementuak ere erabaki ziren: trebetasun hartzaileak eta sortzaileak aintzat hartuko dituzten elementuak. Halaber, maila bakoitzeko unitate kopurua eta unitate bakoitza zein edukirekin hornituko den ere erabaki zen, eta hori guztia nola aurkeztuko den, hau da, unitatearen hezurdura nolakoa izango den.

Egiteko asko, oso desberdinak, eta guztiak ere tentuz lantzekoak dira arestian aipatutakoak, helburua arrakastaz erdietsi nahi bada. Ikuspegi teknologikotik zein pedagogikotik aztertzeko asko zegoen erabakiak hartu eta aurrera egin aurretik. Sistemaren ertz guztiak landu ziren: diseinu instrukzionala, LMSak, ariketa-sortzaileak, unitate kopurua, unitateen iraupena eta kudeaketa-ereduak, besteak beste. Sei hilabeteko lan trinkoa, lan-ildoak argitu eta pauso zehatzak ematen hasteko.

4. DEFINIZIOA: INGURA ZAITEZ EUSKARARA

Beharrezko analisi guztien ondoren definizio fasera iritsi da *Ingura* egitasmoa eta ondokoak finkatu dira, besteak beste: hartzaileak, egitasmoaren oinarri didaktikoak, ezaugarri nagusiak eta ikastaroen egitura.

4.1. HARTZAILEAK

Hartzaileei dagokienez, norentzat izango da sortuko den ekosistema hori, nor izango da inguru digital berri horren hartzailea? 16 urtetik gorako pertsona heldua izango da hartzailea, baina argi dago hartzailearen profila ez dela bakarria izango, hainbat hartzaile-profil izango ditu. Esate baterako, euskarara hurbildu nahi duen edozein erabiltzaile izango da hartzailea, ikas-prozesu arin eta entrenigarri bat abiatzeko prest dagoen oro. A1 mailan doako hainbat unitate eskuragarri izango ditu hurbilpen hori errazteko, eta edozein unetan pasatu daiteke euskara ikasle izatera, horrela erabakiz gero. Beraz, euskara-ikasleak, ikas-prozesu konprometituari ekiteko prest daudenak ere, hartzaileak izango dira. A1-C1 mailak tutoretzapean, osorik egiteko aukera izango dute ikasle horiek euskaltegi batean matrikula eginda.

Era berean, irakasleak ere hartzaileak izango dira, ekosistema horretan lan egingo baitute ikasleekin; eta baita euskaltegiak ere, ikasleen kudeaketa egiteko gune izango baita *Ingura*. Azkenik, HABE bera ere erabiltzailea izango da, euskaltegiekin egin beharreko hainbat prozedura bertatik egingo baititu.

Herritarra euskarara hurbiltzeko nahia ardatz izan da hasieratik. “Ingura zaitetz euskarara” gonbita egin nahi zaio herritarrari. Horrekin batera, ikastaro bati buruz baino, ingurune bati buruz ari garelako kontzeptua, ingurune digitalaren ideia, hastapenetik sus-traitu da. Hortik izena: *Ingura*.

4.2. OINARRI DIDAKTIKOAK

Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren oinarri psikopedagogikoak, hizkuntzen ikaskuntzarako metodologietan eragina duten zientzien ekarpenak eta HEOCak zehazten dituen ildo metodologikoak aintzat hartuta, sortuko diren ikasmaterialek ikaskuntzaren ikuspegi komunikatiboa, soziokonstruktibista, ekintzara bideratutakoa eta kultura- gaitasunean oinarritutakoa izango dute abiapuntu eta ardatz. Ikuspegi horren arabera, ikaslea edota hizkuntzaren erabiltzailea ekintzak burutzen dituen gizarte-eragilea da eta horiek hizkuntza-ekintza komunikatiboen bidez gauzatzen ditu. Ekintzak ikasleen interesekoak izanik, hauek burutzeko beren aurrezagutza eta gaitasun orokor guztiak erabiltzen dituzte ikasleek, jardun komunikatibo esanahiduna eta esanguratsua bultzatuz.

Planteamendu komunikatiboaren arabera, gramatikak bereizitako hizkuntzaren unitate txikiak eta solteek ez baina, benetako komunikazio-unitateek hartuko dute tokia ikas-irakaskuntzaren erdigunean. Bloke natural horiek —ekintza komunikatiboak— izango dira hizkuntzaren ikaskuntzako eta irakaskuntzako abiapuntu eta helburu, eta ez unitate txikiak.

Maila bakoitzerako aurreikusitako helburu-ekintzen hurrenkerak osatuko du programaren oinarria. Inpotean aurkeztuko dira edukiak eta hortik abiatuta landu, hausnartu eta ebaluatzeko prozedurak diseinatuko dira.

HEOCean komunikazioaren eta ekintza-ikuspegiaren baitan aurkezten eta zehazten dira mailaz mailako adierazpide linguistikoak. Baliabide horiek, nahiz eta, laburtze aldera, guztiak HEOCean eskema baten arabera aurkeztu, ez dira aipatutako eskema horren ildotik programatu behar, ezta landu behar ere, baizik eta adierazten dituzten funtzio komunikatiboen arabera. Izan ere, adierazpide linguistikoak ez dira curriculum, ezta eskalduntzearen berariazko helburu ere; helburu den gaitasun komunikatiboranzko birtarteko baizik.

Hori dela eta, programa inpotean aurkeztu eta mailako helburuak betetzeko adinako ekintza eta funtzioen hustuketatik osatuko da, edukien aurkezpen eta erabilera testuinguratu eta integratu bat eskainiz.

Oinarri didaktikoa hori izanik, irizpide orokor hauen baitan diseinatuko dira jarduerak:

- Hizkuntza-unitatea testua izango da, testu testuinguratuaren bidez gauzatzen baita komunikazioa eta esanguratsua bihurtu ikaskuntza.
- Inpotearen benetakotasuna eta naturaltasuna zainduko da: mailako egoera komunikatiboen eredutzat jo daitezkeen hizkuntza lagin natural eta benetakoak aurkeztuko dira.
- Ahozko nahiz idatzizko input ulergarria eta esanguratsua eskainiko da: argia eta egituratua, ikaslearen interesa eta motibazioa piztuko duena.
- Eskatzen diren eta eskaintzen diren testuen artean oreka egongo da eta helburu zehatza izango dute: gogoeta egiteko, komunikazio-ereduak eskuratzeko... .

- Baliabide linguistiko-lexikalak ekintza komunikatiboaren baitan aurkeztu eta eskuratuko dira. Bide induktiboa lehenetsiko da baina gramatikaren eta lexikoaren ikaskuntza esplizitua ere bideratuko da.
- Lan autonomoa garatuko da, hausnartu eta finkatzeko tartearak eskainiz. Talde-lanaren bidez, elkarreraginerako aukera emango da.
- Hizkuntza-trebetasunak edo komunikazio-moduak uztarturik aurkeztuko dira diseinuan: trebetasun hartzaileak, sortzaileak, bitartekotza eta elkarreragina.
- Ikaslearen aurrezagutzak kontuan hartuko dira.
- Ikaslea ikasestrategiak eta estrategia komunikatiboak baliatuz bideratuko da.
- Prozesuari zein produktuari begirako ebaluazio-baliabideak eskainiko dira: autoebaluazioa, irakasleen ebaluazioa eta koebaluazioa.

4.3. EZAUGARRI NAGUSIAK

Didaktikaren ikuspegitik oinarria sendo jarrita, *Ingurara* hurbiltzen diren erabiltzaileek honako ezaugarri nagusiak dituen egitasmoarekin topo egingo dute:

- Bideoetan oinarritutako ikaskuntza-metodoa izango da, video based learning (VBL). Hizkuntzak online irakasteko gaur egungo metodoei eta joerei buruzko azterlanak ikertu ondoren, multimedia-materialean oinarritutako planteamendu bat egitea erabaki da. Planteamendu hori onena da bai inputa testuinguratuta aurkezteko eta baita kontzeptuak azkar eta erraz transmititzeko ere. Gainera, ezagutzak hobeto finkatzeko eta gehiago atxikitzeke aukera ematen du, erabiltzailearen motibazioa areagotzen du eta ikasteko prozesuan ikasleak konprometituago egotea lortzen du.
- Komunikazio-trebetasun guztiak landuko dira: adierazpena, ulermena eta elkarreragina. Beraz, ahozko eta idatzizko ulermena eta mintzamena nahiz idazmena praktikan jartzeko proposamen zehatzak egingo dira. Gainera, teknologiaren aurrerapenak mintzamena online lantzeko aukera emango du, presentzialtasuna eta sinkronia ikaskuntza-prozesuan oztopo gaitzesleak izan ez daitezkeen.
- Ariketen tipologia aberatsa izango da. Mota guztietako ariketak eskainiko ditu *Ingurak*, egungo ariketa-sortzaileek eskaintzen dituzten adina, formatuari eta erantzun itxi eta irekiari dagokienez, proposatutako helburuaren, mailaren eta komenigarritasunaren arabera.
- Tipologia hori aldatu egingo da ikasketa-mailaren arabera, ikasleen beharrak desberdinak baitira horietako bakoitzean.
- Ikaskuntza autonomoa eta feedback automatikoa eskainiko du, taldeko ikas-kuntzarekin batera, tutore batek gidatuta. Ikasleek euren kasa egin beharko dituzten banakako proposamenak taldea osatzen duten gainerako pertsonekin eta tutorearekin elkarreragiteko beste proposamen batzuekin konbinatuko dira.
- Ikasleek kudeatutako hizkuntza erabiltzeko espazioak (audio- eta bideo-espazioak) izango ditu. *Ingurak* gune informaletan ikasten den hizkuntzaren erabilerat bermatuko die ikasleei. Espazio horietan, audio-grabagailua edo bideokamera bezalako tresnak erabili ahal izango dituzte gainerako ikasleekin komunikatzeko.
- Jarraipena - Porfolioa: ebaluazio- eta autoebaluazio-tresnak izango ditu. *Ingurak* aukera emango die ikasleei ahozko, idatzizko edo ikus-entzunezko ekoizpenak gordetzeko, ikaskuntza-prozesuaren jarraipena egiteko tresna gisa, tutoreak ebaluatu ahal izateko eta ikasleek egindako aurrerapenak uneoro autoebaluatu ahal izateko.
- Datu akademiko eta administratiboen kudeaketa egin ahal izango da. *Ingurak* datu akademiko eta administratiboen kudeaketa, ikastaroen matrikulak, HABEREN, euskaltegien, autoikaskuntzarako zentroen eta ikasleen arteko komunikazioa eta jarraipena ahalbidetuko ditu, interesen eta beharren arabera. Funtzionaltasun berriak izan ditzan aplikazioak garatuko dira, lehendik daudenak bermatzeaz gain.

- Hizkuntza teknologiak integratuta izango ditu. Eusko Jaurlaritzako Informazio eta Komunikazio Teknologien Zuzendaritza, EJI Eren bitartez, hainbat proiektu prestatzen ari da hizkuntzaren teknologien arloan. Helburua da, besteak beste, ahotsa-testua/testua-ahotsa bihurtzeari, itzulpenari eta azpigitulu automatikoei buruzko garapenak egitea, baliabide didaktiko gisa *Inguran* ezarri ahal izateko.
- Gamifikazio-baliabideak txertatuta egongo dira. Proposatutako jardueretan, komenigarritzat jotzen denean, gamifikazio-estrategiak eta -dinamikak erabiliko dira, animo-esaldi edo sari gisa. Ikasleek jarduerak behar bezala egiten dituztenean edo beren ibilbidean aurrerapen nabarmenak egiten dituztenean erabiliko dira, motibatuta egon daitezen eta esperientzia ahalik eta onena izan dadin.
- Doako eta ordainpeko ereduak, edo free eta premium izango ditu. Euskara sustatzeko helburuarekin, *Inguraren* zenbait eduki doan eskainiko zaizkie herritarrei. Pertsona horiek doako ikastaro ireki horiek egin ondoren, euskaltegien eta autoikaskuntza-zentroen laguntzarekin euskara ikasten jarraitzeko interesa izanez gero, aipatu zentroek beren ahaleginean gidatuko dituzte ikasleak, eta tutoretza- eta aholkularitza-zerbitzuak eskainiko dizkiete.
- Erabiltzailearen esperientzia (UX diseinua) funtsezko gaia da *Inguran*. Horregatik, plataforman ikasten duen pertsonak plataformaren pertzepzio positiboa izan dezan diseinatuko da *Ingura*. Beraz, oso garrantzitsua izango da hainbat gairen kalitatea bermatzea, hala nola, eskainitako edukiak, horien erabilgarritasuna, erabiltzaileak *Inguran* nabigatzeko duen erraztasuna edo ikaskuntza-ingurunearekiko, tutorearekiko eta sistemaren gainerako erabiltzaileekiko komunikazioa.
- Multiplataforma izango da. gailu guztietan erabilgarria izan dadin konfiguratu da. *Inguran* aukeratutako banaketa-soluzioa multiplataforma da, hau da, edozein gailuren bidez sartu ahal izango da sistemara: telefono mugikorra, tableta, ordenagailu eramangarria, finkoa... Bere ikastaroa bisitatu zuen azken aldi utzi zuen puntu berean sartu ahal izango da erabiltzailea, nahiz eta aldi bakoitzean gailu desberdin batetik sartu.
- Erabiltzaileak erregistratu egin beharko du, bai doako edukietara sartzeko, bai ordainpekoetara sartzeko. Eredu batetik bestera igarotzen denean, erabiltzailearen emaitzak aztertzeke aukera emango du *Ingurak*.

4.4 NOLAKOAK IZANGO DIRA IKASTAROAK?

Ezaugarri horiekin sortuko dira ikastaroak A1 mailatik hasita, C1 mailara arte, izan ere, helburu soziolinguistikoak eta kulturalak dituen proiektu teknopedagogiko hau ikaskuntza eta irakaskuntza integraleko irtenbidea da; *Ingura* Moodle LMSan garatuko da. Moodlen integratuko dira ikas-prozesua osotasunean aurrera eramateko beharrezko elementu guztiak.

Abiapuntua A1 maila izaki, berebiziko garrantzia du hasiberrientzat sortutako ikastaro hau ongi egituratzeak, etorkizunean etorriko diren gainerako ikastaroen oinarria izango baita. Maila hori da momentuz garatuta dagoena, eta berau aurkeztuko dugu adibide gisa.

Gutxi-asko ezaugarrietan aipatuta geratu dira ikastaroari lotutako elementurik garrantzitsuenak. Hala ere, diseinu instrukzionalari jarraiki, A1eko ikastaroak ondoko elementuak lituzke:

- Ikastaroa osatzen duten unitate didaktikoak.
 - 60 unitate eta 100 eskola-ordu.
 - Doako 30 unitate, erregistratze hutsarekin egiteko modukoak, matrikulaziorik gabe, eta tutoretzarik gabe.

- Ikastaro osoa tutoretzapean. Nahi duenak hasieratik izena emateko aukera izango du ikastaro osoa tutoretzapean egiteko. Edo nahiago izanez gero, lehen 30 unitateak doan egin eta ondoren matrikulatu daiteke ikastaroa osatzeko.
- Ikastaroen kudeaketari dagokionez, ikasleak honako aukerak izango ditu:
 - Egindako jarduerak berrartzeko eta erreparatorako aukera.
 - Ikasleak testuak idatzi, grabazioak egin eta kontrastatu ahal izango ditu.
 - Emaitzak, denbora eta bestelako datuak ere izango ditu ikasleak, bere progresioaren berri izango du.
 - Ikasleak sortzen dituen ekoizpenak biltegitratzeko aukera izango du.
- *Ingurara* hurbiltzen diren erabiltzaileek instrukzioak hainbat hizkuntzatan jasotzeko aukera izango dute.
- Erabiltzaileen motibazioari laguntzeko, gamifikazio elementuak izango ditu ikastaroak, hainbat geruzatan antolatuta: jakinarazpenak...

4.5. UNITATE BATEN HEZURDURA

Ikastaroko elementu nagusiak aipatuta, berau osatuko duten ikasunitateen edukiak xe-heago azalduko ditugu. Ikasunitatearen hezurdura osatzen duten elementu bakoitzari erreparatuko diogu. A1 eta A2 mailetarako proposatuko diren jardueren barne-egituraren adibide bat da.

1. Ikusi eta entzun

Atal honetan, komunikazio-egoerari buruzko bideo bat aurkeztuko zaie ikasleei. Bideo horretan, eguneroko egoera esanguratsu bat garatuko da, adibidez, bi pertsonaren arteko lehen topaketa.

2. Hitz egin (errepikatu)

Bigarren atal honetan, bideoan aurrez entzundako esaldiei helduko zaie berriro, audio-formatuan, ikasleak entzun, errepikatu eta bere ahotsa graba dezan. Grabazioa amaitzean, ikasleak bere ahotsa erreproduzitu ahal izango du eta jatorrizkoarekin alderatu. Horrela, bere ahoko ekoizpena ebaluatuko du.

Beraz, mintzamen-ariketa oso zuzendua da, hasierako maila horretan ikasten ari den pertsonak ez baitu behar besteko ezagutzarik diskurtso propioa sortzeko.

3. Azalpena

Atal honetan, lehen atalean erreproduzitutako bideoan aukeratutako hizkuntza lagin espezifikoa aurkeztuko dira, hutsuneak betetzeko edo esaldiak lotu eta ordenatzeko ariketak egiteko. Helburua da proposatutako input errepikakorra baina, aldi berean, askotarikoa azaltzea, hura barneratzea errazteko.

4. Gramatika

Atal honetan, landu nahi den eduki gramatikala bideo berri baten bidez azalduko da. Bertan, irakasle batek eduki gramatikal hori azalduko du adibide oso erraz eta argigarrien bidez. Ondoren, edukia finkatzeko ariketa sorta bat eskainiko da.

5. Hiztegia

Atal hau euskaraz gehien erabiltzen diren izen, adjektibo, aditz eta aditzondoaren oinarritzko lexikoa aurkezteko diseinatuta egongo da. Hitz horiek, gainera, bideoetan azaldu-takoarekin erlazionatuta egongo dira, bai egoera aldetik, bai gramatika aldetik.

Ariketa mota, adibidez, irudia eta hitza lotzea edo irudiarekin batera doan hitza idaztea izango da, besteak beste.

6. Jardun

Aurretik ikusitako komunikazio-egoeraren bideoan oinarritutako rol-jokoa da, eta ikasleak pertsonaia protagonistetako bat aukeratu eta elkarrizketaren bere zatia errepikatu ahal izango du.

7. Ebaluazioa

Aurreko ataletan egindako jardueretan ikasitakoa ebaluatzeko, unean bertan erantzunak ematen dituzten aukera anitzeko ariketak proposatuko dira.

8. Gehiago nahi?

Azken atal hau da egitura osoko irekiena, eta ikasleari beste ariketa eta proposamen mota batzuk eskaintzea da bere funtzioa. Aurreikusten da alderdi kulturekin lotuta egongo direla, esate baterako, literaturarekin edo musikarekin, hizkuntza ikasteak, aldi berean, ikaslea inguratzen duen errealitate kulturala hobeto ezagutzeko balio dezan.

Ingura definitzeko garaian aipatu diren oinarri didaktikoak, ezaugarriak, unitatearen egitura eta abar, guztiak kontu handiz josi dira autoikaskuntza-prozesua arrakastaz burutu dadin (ikus 1. taula).

5. AURRERA BEGIRA

Urtebete luze joan da *Ingura* egitasmoa hasi zenetik, eta oraindik hainbat urtez jardun beharko da lanean ibilbide osoa egin dezan. Baina A1 maila gauzatzeko emandako pausoak eta egindako azterketak ezinbestekoak ziren norabidea argitzeko, eta hurrengo pausoak emateko baliagarriak izango dira, zalantzarik gabe. Orain, jada, A1 mailako ikastaroa egikaritze bidean da. Hainbat arlotako adituak ari dira buru-belarri lanean, gidoiak sortzen, bideoen grabazioak egiten, didaktika-sorkuntzan, eta alderdi teknologikoa garatzen.

Helburua da hilabete batzuen buruan euskara online ikastea erabakitzen duten erabiltzaileek euren esku izatea punta-puntako baliabide erraz, arin eta erakargarria.

1. taula. Inguraren oinarri pedagogikoa eta ikasunitatearen hezurdura biltzen dituen taula. (Iturria: HABE)

OINARRI METODOLOGIKOA	UNITATE-EREDUA ATALAK		
INPUTA – TESTUA HARTU <ul style="list-style-type: none"> • Aurkeztu • Prozesatu <p>Trebetasun hartzaileen lanketa: inputetik hartutako esaldi mailako laginak</p>	1. IKUSI ETA ENTZUN Egoera-bideoa		
	2. HITZ EGIN (errepikatu) Ariketa: ENTZUN (lagina), GRABATU eta ENTZUN (autoebaluzioa)		
EDUKIAK – LEXIKO-MORFOSINTAKTIKO-DISKURTSIBOAK <ul style="list-style-type: none"> • Behatu • Hausnartu <p>Eredu deduktibo eta induktiboak. Arauen esplizitaztea lagin esanguratsuekin.</p> <p>Lanketa: Inputetik hartutako esaldi mailako laginak eta antzeko testuinguru, testu-genero edo intentzio komunikatiboa izanda sor litezkeen lagin gehiago eskainiko dira.</p>	3. AZALPENA Edukien azalpena. Laginak: Inputetik hartutako esaldiak		
	4. GRAMATIKA Ariketa: IDATZI edo OSATU (hutsuneak bete) aukerak emanda		
	5. HIZTEGIA <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko hiztegia: izenak, adjektiboak, aditzak eta adberbioak • Funtzio-esamoldeak <p>Ariketa-tipologia: irudi bidezkoak, bikoteak egin...</p>		Matrikulapekoak
EKINTZA KOMUNIKATIBOA – TESTUA SORTU <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza erabili • Erronkari aurre egin <p>Trebetasun sortzaileen lanketa: Inputa eredu, antzeko testu bat sortu. Elkarreragina</p>	6. JARDUN Rol jokoa Jarduera itxia	AHOZKO talde-jarduerak Elkarreraginean Erronkak	
	7. EBALUAZIOA Aukera anitzeko galderak		ERREPASOA
EBALUAZIOA Autoebaluzio-eredua Elkarrizketa motzak (dialogozatiak)	8. GEHIAGO NAHI? Kultur edukiak: Bideo azpigituluekin Ariketak: gaiaren inguruko ulermen-galderak	TUTORETZA-SAIOAK	

Bibliografia

- Camacho, A. eta Iruskietta, M. (2021). Euskararen irakaskuntza prozesuak: hezkuntza eta hizkuntza teknologiak. *Tantak. EHUko Hezkuntza Aldizkaria*, 32(2), 9–31. <https://doi.org/10.1387/tantak.21654>
- Castañeda, L. eta Adell, J. (ed.). (2013). *Entornos personales del aprendizaje; claves para el ecosistema educativo en red*. Marfil. <https://www.um.es/ple/libro/>
- Council of Europe. (2020). *Common European Framework for Languages: learning, teaching, assessment - Companion volume*. Council of Europe Publishing. www.coe.int/lang-cefr
- Díaz Maggioli, G. (2018). *Hizkuntza-irakaslea: Irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako gaitasun metodologikoa*. HABE.
- Elosegi Arregi, A., Agirre Aranburu, H., Larramendi Muxika, A. eta Maiz Aginaga, A. (2016). *Curriculum-langaiak, testu-ereduak (HEOC)*. (2. arg.). HABE. https://doi.org/10.54512/HEOC_LANG-2020
- Europako Kontseilua. (2005). *Ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako erreferentzia markoa*. Donostia: HABE-Eusko Jaurlaritzza. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. <https://doi.org/10.54512/EEMB-2005>
- Euskararen Aholku Batzordea. Ingurune Digitalean Euskara Sustatzeko Batzorde-atal berezia. (2021). *Euskararen ingurune digitala: gomendioak 2021-2024*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://labur.eus/u0jJT>
- Euskararen Aholku Batzordea. IKT Batzorde-atala. (2016). *Euskarazko IKTak: gomendioak herri-aginteentzat*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <https://labur.eus/bB5D1>
- Gonzalez de Txabarri Miranda, J. J., Elosegi Arregi, L., Agirre Aranburu, H., Larramendi Muxika, A., Maiz Aginaga, A. eta Gonzalez de Txabarri Miranda, L. M.. (2021). *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma (HEOC)*. (2. arg.). HABE. <https://doi.org/10.54512/HEOC-2021>
- Iruskietta, M., Maritxalar, M., Arroyo-Sagasta, A. eta Camacho, A. (2019). *IKTak eta konpetentzia digitalak hezkuntzan*. UEU/EHU.
- Martin Peris, E. (20109). Diskurtso-praktika kokatuak: benetako komunikazio-praktikak. *e-Hizpide*, 95. http://www.irakasbil.eus/argitalpenak/diskurtso_praktika_kokatuak
- Puren, C. (2004). Del enfoque por tareas a la perspectiva coaccional. *Porta Linguarum: revista internacional de didáctica de las lenguas extranjeras*, 1, 31-36. <https://doi.org/10.30827/digibug.28348>
- Saona-Vallejos, M. eta Thomas, M. (2020). An Investigation of Social Networking Sites for Language Learning and the User Experience: The case of Busuu and Spanish as a Foreign Language In B. Zou eta M. Thomas (ed.), *Recent Developments in Technology-Enhanced and Computer-Assisted Language Learning* (72-98. or.). IGI Global. <https://doi.org/10.4018/978-1-7998-1282-1.ch004>